

JOSE ALBERTO ARRATE

«Eremu elektromagnetikoen gaian, alarma datuek eurek sortzen dute»

Eibarren jaio zen 1955ean, elkarriketa hau egin dugun etxean. Sorlekuan bertan du bulegoa Jose Alberto Arrate abokatuak, Euskal Herrian eremu elektromagnetikoen kalteengatiko auziak daramatzan bakarretakoa, bakarra ez bada. Berriki Donostian egindako jardunaldi batzuetan, gaiari buruzko legediaz jardun zuen, eta hortik abiatu dugu elkarriketa.

| UNAI BREA |

Argazkiak: Dani Blanco



Donostiako jardunaldietan Europar Batasunaren 1.815 erresoluzioaz hitz egin zenuen, eta hura udaletan aplikatzeko moduez. Zer dio erresoluzio horrek?

Oso aurrerapauso garrantzitsua da eremu elektromagnetikoen arauketan. 1.815 erresoluzioa Europar Parlamentuko Batzarraren gomendio bat da, 2011. urtekoa, oinarritz-

ko zenbait alderdi dituen. Bata, ALARA printzipioaren alde egiten duela, hau da, eremuekiko esposizioa ahal bezain txikia izan dadila. Bi, ahulenek (umeek, zaharrek, gai-xoek...) erabateko babesa izan deztela. Eta urrats garrantzitsua: mikrouhinekiko esposiziorako gehieneko balio segurua zentimetro koadroko 0,1 mikrowattetan

ezarri du. [1.815 erresoluzioak, zehazki, eraikin barruetarako ezartzen du balio hori, eta epe laburreko helburu modura betiere; epe ertainean, muga 0,01 mikrowattera jaiste proposatzen du].

Espainiako Estatuan gaur egun indarrean dagoen araudia, 2001ekoa, EBko osasun ministroek 1999an emandako gomendio



batean oinarritzen da. Orduan, 450 mikrowattetan ezarri zuten muga. Baina handik urte batera zientzialari talde bat elkartu zen Salzburgon, eta esan zuten gehienezko kopurua 0,1 izan beharko litzatekeela.

4.500 aldiz gutxiago.

Hala da. Eta azkenean, denbora luzea pasatzen utzi badu ere, Europar Batasunak arrazoia eman die. Azpimarratzekoa da Salzburgokoa eta gero zientzialari biltzar gehiago izan direla, eta denetan berretsi dela orduan esandakoa. Bitartean, Europar Parlamentuak, 2008an eta 2009an emandako erresoluzio bitan, adierazi izan du 1999ko gomendioa zaharkituta geratu dela.

“Eztabaida ez da ea eremu elektromagnetikoek kaltea eragiten duten ala ez, baizik eta kalteak zenbateko esposiziotik aurrera gertatzen diren”

Azkenik, hori guztia 1.815 erresoluzioan gauzatu da. Gainera, hura atera eta denbora gutxira, Osasunaren Mundu Erakundeak, 2B multzoan sailkatu zituen erradiazio elektromagnetikoak. Hau da, “baliteke minbizi-eragileak izatea”.

Hala ere, 1.815 erresoluzioa gomendioa dela diozu. Beraz, ez da derrigorrezkoa betetzea.

Ez da loteslea, egia da, ez du behartzen. Baina moralki behartu egiten du. Kontuan izan behar da estatuek sinatu egin dutela.

Bai, baina...

Une honetan hutsune moduko bat dago. Estatuak Europako gomendioaren arabeko araudia egingo balu, udalen funtzioa hirigintzaren eremuko baizik ez litzateke izango. Baina hutsunea dagoen bitartean, eta udalek uste badute beren interesak

jokoan daudela, eskumenak balia ditzakete arautzeko, 1.815 erresoluzioa barne. Hori da nik defendatzen dudana. Betiere kontuan hartuta, eta hori funtsezkoa da, arautze horrek ez diola trabarik egin behar telekomunikazio zerbitzuari, hura oinarritzkoa baita. Hala esanda dauka [Espainiako] Auzitegi Gorenak, 2000tik honako hainbat epaitan. Dena den, posible da telekomunikazio sistema bermatzea eta aldi berean herriarren osasuna babesteko neurriak hartzea.

Antenak lekuz aldatzeaz ari gara?

Sistema osoa modu arrazoizkoan egituratzeaz ari gara. Hori planifikazioaren bidez lortzen da, potentzia mugak ezarri, eta ahal bada, distantzia mugak ere bai. Espainiako Gaztela bietan ikusi da udalek, gaia konplexua zela aurreikusita, telefonía konpainiekin negoziatu eta antenak herrien kanpoko aldean kokatzeko esan dietela.

“Posible da telekomunikazio sistema bermatzea eta aldi berean osasuna babesteko neurriak hartzea”

Eta ez dago arazorik; ez estaldura faltarik, ez protesta sozialik. Baina hori hiri handietan egitea zailago suertatzen zaie konpainiei, planifikazioa eskatzen duelako, dirua da. Antenak nahi duten lekuan ipiniz gero, merkeago ateratzen zaie, eta halaxe egin zuten hasieratik. Ez dute berregituratu nahi, ez dute nahi gaiaz hitz egin dadin ere. Beti esan dute gai hau estatuaren eskumenekoa dela, eta nahi duten lekuan jar daitezkeela antenak, oinarritzko zerbitzua ematen ari direlako eta guztiz segurua delako. Neurtzekotan, neurtu egiten da ea erradiazioa 450 mikrowattera iristen den, eta hori oso zaila da, antena bat besarkatuz ere ez zara iristen horretara.

Nolanahi, praktikan urrun gaude 1.815 erresoluzioa aplikatetik.

Bai. Dena den, dagoeneko leku askotan ez da gainditzen 0,1 mikrowatteko muga hori, eta estaldura egon badago.

Donostiako hitzaldian zera esan zenuen: “Hedabideek mezu lasaigarriak zabaltzen badituzte ere, jendeak errefusatu egiten du erradiazio horiekiko esposizio ez-boluntarioa”. Bada, zientzialari bat baino gehiagori irakurri izan diogu kontrakoa dela, alegia, hedabideek funtsik gabeko alarma eragiten dugula, besteak beste hau bezalako elkarriketak eginez.

Alarma datuek eurek eragiten dute. Eta badugu hainbat datu berri. Batetik, Europar Parlamentuak esan zuen, 2008an eta 2009an, aurrez ezarritako mugak zaharkituta daudela. Bestetik, azpimarratu zuen eremu elektromagnetikoak sortzen dituzten enpresen aseguru-polizek ez dituztela bere gain hartzen kutsadura elektromagnetikogatikoa kalteak. OMEk esandakoa ere hor dago, OME berak baitio “baliteke minbizi-eragilea izatea”.

Badago, halaber, Italiako Auzitegi Goreneko sententzia bat, pertsona batek eduki zuen burmuineko glioma zuzenean lotzen duena eskuko telefonoa erabiltzearekin. Horiexek sortzen dute alarma.

Nik ez dut alarma sozial handirik nabaritzen, dena esatera. Eskuko telefonoaren erabilera gorantz doa, wi-fi gabeko taberna bat ez duzu aurkituko... Benetan jendeak honen axola du?

Gai interesgarria da hori. Tabako paketeetan irakur daiteke: “Erretzeak hil egiten du”. Eta jendeak erre egiten du. Tira, horrek hiltzen ez bagaitu beste zerbaitek hilko gaitu eta... Baina nik, erretzailea izan arren, ez nuke onartuko zuk zeure kea botatzea nire aurpegira, edo nire seme-alabenera. Nik pentsa dezaket eskuko telefonoa kaltegarria dela niretzat, eta hala ere erabili, baina ez zait gustatzen antena baten erradiazioa nire logelara sartzea. Horra iritsita, balorazio moralak egiten has gintezke, baina ni ezin naiz horretan sartu. Kontua da jendeak eskuko telefonoa darabilela eta aldi berean antena bere etxean jartzearen aurka dagoela. Kezka egon badago, eta erakunde publikoen gaineko presioa nonahi aurkituko duzu.

Herritar arruntak ez daki zer pentsatu, ordea. Berriki argitaratutako ikerlan batek baztertu egiten du eskuko telefonoa erabiltzearen eta zenbait minbiziren artean lotuta dagoenik.

Uste dut eztabaida hori guztiz gaindituta dagoela. Espainiako legeak, 1.066. Dekretuak hain zuzen, eremu elektromagnetikoek nerbio-siste-



mari eragindako kalteak aipatzen ditu. Kalteak badaude, egon; eztabaida ez da hori, baizik eta zenbateko esposiziotik aurrera gertatzen diren. Oraindik bakarren batzuk saiatzen dira esaten eremu elektromagnetikoak guztiz kaltegabeak direla, baina uste dut eztabaidaren muina, gaur egun, kopuruak direla. Esango nuke ia zientzialari bakar

bat ere ez dela ausartzen, gauden-gaudenean, eremu elektromagnetikoak guztiz kaltegabeak direla esatera. Ezagutzen ditut nik hemen esan dudaren aurka buru-belarri diharduten batzuk, eta beti uzten dute aterren bat zabalik, “gehiago ikertu behar da” esanez. ■






www.santelmomuseoa.com

Erakusketa
San Telmo Museoa / Untzi Museoa
2014ko urtarrilaren 7a arte

«Bake-ituna»

1813

Donostiaren setioa, sutea eta berreraikitzea



Koproduktoreak



San Telmo Museoa: Patroino pribatuak

Erakundeak



San Telmo Museoa: Enpresa ongileak



San Telmo Museoa: Enpresa ongileak